

## Irakaskuntza ez unibertsitarioaren matrikulazioa, ereduak (2007/08)

Unibertsitateaz kanpoko 164 ikastetxe daude Araban. Haur Hezkuntzan 134, Lehen Hezkuntzan 77, Bigarren Hezkuntzan 53. Irakaskuntza ez unibertsitarioan 46.716 ikasle matrikulatu ziren 2007-08 ikasturtean, eta ereduari dagokienez, Arabako ikasleen herenak eredu banatan ikasi zuen urte horietan: A ereduaren %31,0, B ereduaren %33,2, eta D ereduaren %35,8. Dena dela, ikasketa-maila kontuan hartzen dugunean, askoz handiagoa da ereduaren arteko aldea, hau da, zenbat eta ikasketa maila txikiagoa izan, hainbat eta handiagoa da D ereduaren matrikulatutako ikasleen kopurua. Hain zuzen, Haur hezkuntzan D eta B ereduaren matrikulazio kopurua oso parekatuta daude. Haur Hezkuntzako ikasleen %46,4 D ereduaren daude matrikulatuta, %45,9 B ereduaren eta % 7,7 baino ez A ereduaren. Alegia, %92,3 euskarazko ereduaren daude matrikulatuta Haur Hezkuntzan.

| Irakaskuntza ez unibertsitarioa hezkuntza eredu eta lurraldearen arabera. EAE 2007/08 |               |             |             |             |
|---|---------------|-------------|-------------|-------------|
|   | Araba         |             |             |             |
| Ereduak   | Guztira       | A+X         | B           | D           |
| Haur Hezkuntza  | 12.552        | 7,7         | 45,9        | 46,4        |
| Lehen Hezkuntza   | 15.446        | 18,6        | 44,3        | 37,0        |
| DBH   | 9.986         | 36,7        | 28,7        | 34,6        |
| Batxilergoa   | 4.462         | 66,6        | 0,0         | 33,4        |
| Lanbide Heziketa  | 4.060         | 95,1        | 0,0         | 4,9         |
| H. berezia  | 210           | 78,1        | 10,5        | 11,4        |
| <b>Guztira</b>  | <b>46.716</b> | <b>31,0</b> | <b>33,2</b> | <b>35,8</b> |

***Iturria:** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*